

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
URTZI IGLESIAS

Zumaia (Gipuzkoa)

Arrauna eskuan, gazi-gezak dastatzen

Aurreko asteetan eskainitako txangoak egin eta gero, hankak, agian, nekatuta sentituko dituzue. Horrela bada, primeran etorriko zaizue dakargun proposamena, eserita ekingo baitiogu ibilbide berri honi. Ez pentsa, hala ere, ahaleginik egin beharko ez dugunik. Giharrak berotuko zaizkigu, baina oraingoan besokoak izango dira gure motorra, izan ere, piragua edo kayaka erabiliko dugu garraibidetzat. Horretarako, Urola ibaia eta Zumaiaiko itsaslabarrak izango ditugu inguru ezin hobeak.

Zumaiaira kotxez heltzeko, bide nagusi bi ditugu, bai Donostiatik bai Bilbotik etorrira: Bilbo-Behobia A8 autopista eta N-634 errepidea. Lehenengoa, azkarragoa eta erosoagoa, bihurgune faltan ez badago ere: Bilbotik Zumaiaira 45en bat minutuko bidea dago eta Donostiatik, berriz, 25 minutu inguru. Bigarrena motelagoa da, baina ikusgarriagoa ere bai. Donostiatik etorrira, Zarautz eta Zumaia arteko hamar kilometroak itsasertzetik doaz oso-osorik, eta txoko eta paisaia zoragarriak eskaintzen dizkigute. Bilbotik gerturatuz gero, Deba eta Zumaia arteko bidean bista ederrez gozatuko dugu, bai mendi artean zein itsaso ondoan. Behin Zumaian, Astilleros Balenciagaren aurrean dagoen Itsas Kiroldegia

bilatu eta ondoan dagoen aparkalekuan utziko dugu autoa.

Paseoan ibiltzeko beste modu bat

Esan legez, uretatik egingo dugu ibilaldia. Piraguismoa kirol gogorra eta teknikoa dela pentsa dezakezue batzuek, baina gure txangoa ez da horrelakoa izango; olgetarako edo paseorako piraguarekin egingo dugun hau lagun artean edo familiarrekin egin daiteke eta, ahalegin fisiko handirik egin gabe, lurretik suma ez daitezkeen paisaiez gozatuko dugu. Nahi duzuen piragua aukeratu dezakezue, modalitate horren barruan erabil daitekeen ontzi aukera zabala da eta.

Beharrezko ekipoa hartu, Itsas Kiroldegi ondoko eskaileretatik jaitsi eta Itxas-gain piraguismo talde-

koek erabili ohi duten pantalanera hurbilduko gara. Bertan, ohiko beroketa eta luzaketa ariketak egin, salbamendu jaka jantzi, piraguan sartu eta prest egongo gara besoei eragiteko. Eskuinerantz joko dugu lehenik, Zumaia atzean utzita, Urola ibaian gora. Gure xedea Beduako meandorra heltzea izango da. Nahiz eta Urolan zeuden padura gehienak nekazaritzak eta industriak desagerrarazi dituzten, oraindik ere gune batzuk geratzen dira, hainbat espezieren bizileku.

Getariarantz doan N-634 errepi-dearen azpitik igaro, eta laster giro lasaia barneratzen hasiko gara. Gure eskuinean poligono handia izango dugu zenbait metrotan, baina aste-akabuan joanez gero jarduera gutxi izango du. Ezkerreko



IÑAKI ACASUSO

aldean, berriz, malda gogor baten magalean kokatutako artadi ederra ikus dezakegu. Kantauriko arteez osatutako baso itxia da, baina gurbitz, arbustu arrunt, mahats gordin edota haritzen bat ere ikusta daiteke. Polita da, egun ere, gizakiaren esku-hartze handirik izan ez duen txokorik dagoela ikustea.

Bizitzaz betetako irlatxoak

Bilbo eta Donostia lotzen dituen trenak ibaia pasatzeko duen burdinazko zubi berdearen azpitik igaro eta 300 metrotan, eskuineko industria gunea atzean utzi eta itsasaldiek eta ibaiak urteetan garraiatutako materialez sortutako irlatxo modukoak izango ditugu begien aurrean. Landare eta animalia komunitate bitxiko ekosistema dugu hau: martin arrantzalea, kuliska txikia, koartzta gorria eta *glauco maritima* ikus ditzakegu, besteak beste. Hirigunea eta fabrikak ondo-ondoan ditugula dakigun arren, momentu batez zibi-


lizaziotik urrun, oso urrun, gaudela sentitzeko aukera dugu hemen.

Zumaiarantz

Oikiako ibarrera heldu aurretik buelta eman eta, ibaiak egiten duen moduan, itsasorako bidea hartuko dugu. Ibilbidearen hasierako puntura gerturatzen garen heinean

—hogeiren bat minutu—, Zumaia aurrez aurre aurkituko dugu, San Pedro parrokia zaindari duela. Aurrerago, Urolak eta Larrondo errekek bat egiten duten lekuan, eskumatarara jo eta itsasoratuko gaituen pasabidean sartuko gara. Hirigunea ezkerreko aldean utzi dugu, kirol portua eskuinean, eta azkenik,





hor daukagu itsasoa. Urola ibaiak hondarrez osatutako barra zabala sortzen du hemen. Lehenik, badiaren babesean, padura ikus dezakegu; barraren iparraldean, ostera, Kantauri itsasoa aurrez aurre duela, Santixoko hondar duna dago.

Itsasoaren handitasunean

Malekoiaren babesa izan dugu orain arte, baina dagoeneko itsaso zabalera irten gara eta aurrera egitea nekosoagoa egiten zaigu. Izan ere, gauzak bestelakoak dira ur gaziaren eremuan, olatu eta korronteen menpe gaude orain eta indarrez arraun egin ezean, eurek eramango gaituzte gura duten bide-tik. Horregatik, ur zabaletan, piraguismo teknikaren oinarriko ezaguerak edukitzeaz gain, nabigazio kontzeptuak ere jakin behar dira, itsasora irteten garenean haizearen indarra, korronteak eta mareak kontuan izan behar direlako, baita itsasertza irakurtzen jakin ere. Zumaia inguruan, normalean, haizeak iparraldetik jotzen du; hegoalde-tik datozenak urriagoak izaten dira. Haize boladarik indartsuenek udazken eta negu bukaeran jotzen dute. Beraz, irteera hau egiteko garairik onena udaberria eta uda artekoa litzateke. Hala ere, zenbait kasutan, udaldian bereziki, tenperatura altuko egunetan, galernak sortzeko arriskua ere badago. Alderdi garrantzitsu horiek ezagutuz gero, kayaka itsasertza ikusteko edo lurretik sartzea ezinezkoa diren bazterrak ikusteko modurik onena izan daiteke.

Flyschak, denboraren aztarnak

Morruari buelta eman eta hura atzean utzita, Zumaia-ko itsaslabarrak eta itsaso zabala baino ez dute ikusten gure begiek orain. Benetan ikusgarriak dira gris koloreko geruza bertikal horiek, ikusgarriak begietarako eta baita geologiaren ikuspuntutik ere. Duela milioika urte itsas hondoan pilatutako sedimentuei esker eratu ziren harriek geologiaren altxortzat har deza-



Kayaka, olatuak hartzeko ontzia ere bai

Piraguismo kirolaren baitan hainbat jarduera dago. Aisialdirako piragua izan daiteke hurbilenekoa edo ezagunena; baina bada, gure itsasoak ematen dizkigun aukerei esker, Euskal Herrian praktika daitekeen beste modalitate bat: kayak surfa. Izenak dioten bezala, piraguarekin surf egitea da kayak surfa; normalean ontziak itxiak dira eta pala bikoitzarekin gidatzen dira. Oraindik diziplina ezezaguna bada ere, egun jada ez da arraroa kostaldeko zenbait herritan zaleak kayak surf egiten ikustea. Matxixako lurmuturra urrunean ikusten dugula, Itzurun hondartza leku paregabea izan daiteke ur geldoetan paseoa ibili eta gero adrenalina pizteko.

Kayak surf egiten hasteko asmoa duzueni komenigarria zaizue ikastaroa egitea. Batez ere, ez bazarete piraguan inoiz sartu. Izan ere, piraguismoaren modalitate honetan, piraguaren kontrol handia izatea, olatuak hartzen jakitea eta egoera zailetatik irteten jakitea ezinbestekoak dira. Horien artean, piragua irauli eta berezko jatorrira bueltatzeko, eskimoteatze-teknika menperatzea lagungarria izango da oso –ontzia olatuen gainean utziz gero, olatu eta korronteen menpe geratuko da–. Bada kontuan hartu beharreko beste faktore bat: surf-oholarekin alderatuz, kayakean olatua gainean lehertzen bazaizu, oso zaila izango zaizu bertatik ateratzea; hori gertatuz gero, apar azpian bira asko egiteko presta zaitez.

Beharrezko materiala

- ✓ Piragua: jardueraren araberakoa. Kayak surf egiteko, adibidez, wave-ski izenekoa erabiltzen da. Ur geldoetan paseoa aritzeko, ontzi luze eta egonkorragoak erabiltzen dira.
- ✓ Salbamendu jaka.
- ✓ Pala: hori ere jardueraren araberakoa izango da.
- ✓ Kayak surfean edo ur lasterretan, neoprenozko jantzia –negurako, bereziki– eta kaskoa ere bai.

Zenbait gomendio

- ✓ Uretara sartu aurretik, itsas korronteak eta itsasaldiak nolakoak diren ikusi.
- ✓ Sartu behar zaren eremuaren oztopoak ezagutu.
- ✓ Oztopo horien araberako teknika menperatzea ezinbestekoa da, ustekabeei behar bezala aurre egin ahal izateko.
- ✓ Ez sartu uretara bakarrik.
- ✓ Neoprenozko trajea erabili, batez ere neguan.
- ✓ Kaskoa erabili.



Ondo ezagunak ditugu Zumaiako itsasertzeko flyschak. Bistarako ederrak izateaz gain, geologoentzat altxor izugarria dira itsaslabarretako geruza bertikalak, milioika urtetako historiaren berri ematen baitute.

kegun hau osatzen dute. Esaten dutenaren arabera, gure planetaren iraganeko 50 milioi urtetan Lurra gordetako zenbait sekretu agerian uzten duten liburu modukoak dira aipatu geruzak eta bertan aurkituta-

ko fosilak. Denboran bidaiatzeko parajea, zalanza barik.

Itzurun hondartzara heldu gara dagoeneko, nabigatzaileen zaindaria den San Telmo gurtzen duen ermitaren gerizpean. Kantauri itsasoari

begira, flyschez edo itsaso gaineko geruza bertikalez inguratuta hau ere. Hemendik eta Debaraino, orain arte ikusitakoaren modukoa da kostaldea, itsasoaren etengabeko higaduraren ondorioz sortutako formazio geologiko ikusgarritz bete. Gu ordea, ez gara haraino helduko, Itzurun hondartza baino ostenduago dagoen Algorri hondartza baita gure jomuga. Baina itzuli aurretik, har ditzagun minutu batzuk leku magiko eta paregabe honetaz gozatzeko. Hondar gutxi eta haitz ugariko txokoa da Algorri, marea igotzen den bakoitzean urez estaltzen dena. Udan, Matxixakoren aurretik itsasoan ezkututzen denean, eguzkiak kolore sinestezinak nabarmentzen ditu haitz zoragarri horietan. ■